

GAZTERIA ETA KIROLA SAILA

HERRIKO ERAGILEEK OIARTZUNGO UDALERRIAN KIROL EKINTZAK EDO JARDUERA BEREZIAK ANTOLA DITZATEN 2024KO DIRULAGUNTZAK BANATZEKO OINARRI-ARAU ESPEZIFIKOAK

1. ARTIKULUA.- Xedea eta helburuak

Oinarri-arau hauen xedea da, 2024an zehar, Oiartzungo udalerrian kirol ekintzak edo jarduera bereziak herriko eragileak antola ditzaten, norgehiagoka araubidez, dirulaguntzak banatzea. Kirol jarduera horien xedea da herrian kirola sustatzea, eta ez dute irabazi asmorik izango. Gainera, kirol arloan interes orokorrekoak izan beharko dute.

Dirulaguntza hauetan kontuan izango da Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza, 2022-2024rako diru laguntzen Plan Estrategikoa, eta 2005eko Berdintasun Legeak 3. tituluan jasotzen duena. Honen arabera, 16, 18.4, 23. eta 24.2 artikuluetako printzipio orokorrak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-aginte guztiei aplikatuko zaizkie baita erakunde pribatuei ere, baldin eta Erkidegoko herri aginteetako batekin kontratuak edo lankidetzak-hitzarmenak sinatzen badituzte, edo herri-aginte horiek emandako laguntzen edo dirulaguntzen onuradunak badira.

Beraz, pertsona edo elkarte onuradunak aplikatzekoa zaion indarreko araudi guztia errespetatu beharko du; eta bereziki Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea eta beronen aldaketak martxoak 3ko 1/2022 Legeak ezarritakoak.

2. ARTIKULUA.- Onuradunak eta parte-hartze baldintzak

Oinarri hauek arautzen dituzten dirulaguntzak eskatu ahal izago dituzte, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokorrak 2. artikuluan zehazten duen moduan:

Egoitza edo ordezkaritza iraunkorra Oiartzunen duten edo bere jarduerak iraunkorki bertan egiten dituzten pertsonak edo elkarteek eskuratu ahal izango dituzte dirulaguntzak. Hala ere Oiartzundik kanpoko pertsonen edo elkarten jarduerak lagundu ahal izango dira, interes orokorrekoak badira.

Onuradun izan daitezke pertsona fisiko edo juridikoen elkarteak, ondasun-erkidegoak edo, nortasun juridikorik ez izan arren, proiektuak, jarduerak edo portaerak burutu ditzakeen, edo dirulaguntza ematea eragin duen egoeran dagoen edozein ekonomia-unitate mota.



Ezin izango dute dirulaguntzarik jaso, indarrean den araudiari jarraiki, eskubide hori mugatuta edo ezabatuta duten pertsonak edo erakundeak. Halaber, ezin izango dute dirulaguntzarik eskuratu behin betiko ebazpen bidez eskubide hori ebazpenak erabakitako epean galtzera zigortutakoek ere, edo Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan adierazitako beste edozein kasutan daudenean.

Ez zaie dirulaguntza emango ondorengo entitateei:

- Elkarrekin sexu-bereizkeriagatik zigor administratiboa edo penala jaso duenean.
- Erakundeak edo entitateak bere helburuetan, onarpen-sisteman, funtzionamenduan, ibilbidean edo jardueretan emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkakoak diren edo argi eta garbi bereizkeriakoak diren kontuak edo alderdiak dituztenei.
- Ezingo dute onuradun izaera eskuratu beren baitan gizon eta emakumeen presentzia eta parte-hartzea berdintasun egoeran gauzatzea galarazten duten elkarrekin, salbu eta, sexu bakarreko kideek osatutako elkarrekin izanik, helburu nagusia gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzea edo emakumezkoen nahiz gionezkoen berariazko interes eta beharrak sustatzea dutelarik.

3. ARTIKULUA.- Diruz lagunduko ez diren gastuak

Ez da dirulaguntzarik emango honelako gastuetarako:

- Udal sail beraren edo beste udal sail baten berariazko eskumenekoak diren eta horien laguntza edo hitzarmen baten barruan sartzen diren gastuak.
- Dirulaguntza ematen den ekitaldi ekonomikoan ez, baizik eta beste batean gauzatuko diren gastuak.

4. ARTIKULUA.- Dirulaguntzaren kontzeptuak eta irizpideak. Zenbatekoa. Gehienezko dirulaguntza eta aldaketak

4.1 DIRULAGUNTZEN KONTZEPTUAK ETA IRIZPIDEAK

Oinarri hauetan zehaztutako ez-ohiko kirol jarduerak diruz laguntzeko zehaztutako zenbateko guztia, epe barruan aurkeztutako eskaera guztiak kontutan hartuz, jarraian azaldutako kontzeptu eta irizpideen arabera banatuko dira:



OIARTZUNGO
UDALA

	Jardunaldi kopurua	Puntuak (15 gehienez)
1.	1	5
	2-3	10
	>3	15

	Parte- hartzaile kopurua	Puntuak (25 gehienez)
2.	<100	5
	101-200	10
	201-300	15
	301-500	20
	>501	25

	Aurrekontua eurotan	Puntuak (20 gehienez)
3.	0€-500€	0
	501€-1.000€	5
	1.001€-2.000€	10
	2.001€-5.000€	15
	>5.001€	20

	Aurrekontuan elkartearen ekarpena	Puntuak (20 gehienez)
4.	% 20a baino gutxiago jarri du	0
	% 20 - 39 bitartean jarri du	5
	% 40 - 59 bitartean jarri du	10
	% 60 - 79 bitartean jarri du	15
	% 80 - 99 bitartean jarri du	20

	Proiektuaren balorazioa	Puntuak (40 gehienez)
5.	Jardueraren garapena	20 gehienez
	Jardueraren zabalkundea	20 gehienez

	Kirol jardueraren jarraitasuna	Puntuak (10 gehienez)
6.	Urte bakoitzeko	1

	Pilota eta Herri kirolak	Puntuak (5 gehienez)
7.	Ez	0
	Bai	5

	Emakumezkoen parte-hartzea sustatzeko berariazko ekimenak	Puntuak (15 gehienez)
8.	Emakumeentzat egokitutako ekitaldia (ibilbidea, distantzia edo proba egokitzea...)	3
	Emakumeek bakarrik edo formatu mistoan parte hartzea ekitaldian	3

<i>Emakumeek ekitaldian parte hartzea erakartzen duen proiektua</i>	3
<i>Emakumeen irudia sustatzea (sexu genero rol ez-estereotipatuak bultzatuz) kirol-jardueraren komunikazio-euskarri guztietan (triptikoak, kartelak edo gonbidapenak)</i>	3
<i>Emakumeei bereziki zuzendutako ekitaldi aurreko saioak egitea, haien parte-hartzea bultzatzeko</i>	3
<i>Emakumeen parte-hartzea sustatzeko aipatutako 3 ekimen espezifiko edo gehiago egitea</i>	15

Gauzatzen diren ekintza guztiak behar bezala justifikatu behar dira, beharrezkoak diren agiriak aurkeztuz.

Dirulaguntzaren zenbatekoa eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera finkatuko da eta ezingo da izan antolatu beharreko **kirol ekintza edo jarduera bereziaren** kostua baino handiagoa.

Kirol ekintza edo jarduera bereziaren gastu bezala honako hauek baino ez dira kontuan hartuko:

- **Ekitaldiko, torneo, txapelketa gastuak:** federazioaren kanona, arbitrajeak, kartelak, materiala (bolak, pilotak...), garaikurrak, segurtasuneko materiala (hesiak...).
- **Beste gastu batzuk:** monitoreen gastuak, aseguruak...

Irizpide hauekin eskaera bakoitza baloratuko da. Gutxienez 30 puntu lortzen ez dituzten eskaerak baztertu ondoren, puntuazio hori gainditzen dutenen artean, dagokion diru partidaren gordetako dirua, eskatutako dirulaguntzaren baitan, kirol ekintza edo jarduera berezi guztien artean proportzionalki banatuko da.

4.2 ZENBATEKOA

Programa honen bidez deitutako diru-laguntzen zenbatekoa **15.000,00 euro** izango da, 1 0352.481.341.00.03 2024 aurrekontu partidaren kargura, eta lehiaketa bitartez “Ez-Ohiko Kirol Jardueretarako dirulaguntza” kontu sailaren kontura finantzatuko da.

4.3 GEHIENEO DIRULAGUNTZA ETA ALDAKETAK

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak bateragarriak izango dira edozein Administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk xede berarekin emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderek.

Aurreko kasuan, onuradunak jakin bezain laster jakinarazi beharko dio organo emaileari dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide horiek lortu izana, eta nolana ere, jasotako fondoei emandako aplikazioa justifikatu aurretik.

Udalak emandako dirulaguntzen zenbatekoak ezin izango du inoiz, bakartuta zein beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, erakunde onuradunak diruz lagunduta garatu beharreko jardueraren kostua gainditu.

5. ARTIKULUA.- Eskaerak aurkezteko lekua eta dokumentazioa

2. artikuluan zehaztutako baldintzak betetzen dituzten pertsonak edo elkarteak dirulaguntzak lortu nahi badituzte, aurrez aurre edo modu telematikoa aurkeztu ahal dituzte eskaerak. Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako edozein bitarteko erabilita aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- a) Eskaera orria. **(I. ERANSKINA)**
- b) Jardueraren gastuen eta sarreraren aurrekontua. **(II. ERANSKINA)**
- c) Jarduerari buruzko eranskina **(III. ERANSKINA)**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Oiarzungo Udalak bitarteko elektronikoen bidez egingo ditu deialdi honetarako beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak, datu elkarreragingarri hauek lortzeko:

- Identitatea. (eskatzailea pertsona fisikoa bada).
- Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.
- Gizarte segurantzarekiko betebeharren ordainketan egunean izatea.
- Eskaera egiten duen pertsona fisikoak edo elkarteak eskaera orrian adierazitako kontu korrontearen titulartasuna.

Horiek guztiak, interesdunak eskabidean berariaz aurkakorik adierazi ezean; aurka azalduz gero, Oiarzungo Udalak sektore publikoko edozein entitatetik beharrezkoak diren datuak zuzenean jasotzeko, haiekin egiazta dezan aurkezteko baldintza guztiak betetzen direla.



Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikulua araberan, Oiartzungo Udalak ezin baditu agiri horiek elektronikoki bildu, salbuespen gisa, eskatu ahal izango dio interesdunari horiek aurkezteko.

6. ARTIKULUA.- Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria aurkeztea

Eskaerak edo horrekin batera doan dokumentazioak ez baditu identifikazio datuak biltzen, akatsen bat badu edo zerbait falta bada, eskatzaileari eskatuko zaio 38/2003 dirulaguntzak arautzen dituen Lege Orokorrak eta Udal Ordenantza Orokorrak ezarritakoari jarraiki, hamar (10) eguneko epean akats horiek zuzentzeko; eta adieraziko zaio ezen, hori egingo ez balu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aipatu legearen 23. artikuluan aurreikusitako moduan.

7. ARTIKULUA.- Epeak

Dirulaguntza eskaerak, 30 egun naturaleko epean aurkeztu behar dira, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean deialdi hau argitaratzen denetik zenbatzen hasita, 5. artikuluan deskribatutako agiriekin batera.

8. ARTIKULUA.- Beste dirulaguntzekin bateragarritasuna

Araudi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin. Bateragarritasunari buruz sortu daitezkeen zalantzak argitzeko, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokorrak 14. artikuluan finkatzen dituen irizpideak jarraituko dira.

9. ARTIKULUA.- Emateko prozedura

Dirulaguntzak emateko prozedurak, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzak IV. Tituluan (22-23 artikulua) zehazten diren pausoak jarraituko ditu, bertan azaltzen diren baldintzekin:

- Kirol arloko teknikariak dirulaguntza eskariak ebaluatuko ditu.
- Txostena egin eta Herritarren Batzordera eramango du, honek txostena kontuan hartuta, bere iritzia eman eta behin behineko proposamena luzea dezan.
- Alkate-Dekretuz behin-behineko proposamena onartuko da, hamar eguneko epea eskainiz interesatuei alegazioak aurkezteko. Prozeduran pertsona interesdunek argudiatutakoak beste egintzarik, alegaziorik edo frogarik agertzen ez denean, entzunaldi-izapide hori bazter utzi ahal izango da. Kasu horretan, ebazpen-proposamena behin betikoa izango da.
- Aurkeztutako alegazioak (baleude) aztertu ondoren, behin betiko ebazpen-proposamena egingo da. Proposamen horrek dirulaguntzaren emakidarako



proposatzen dituen eskatzaileen zerrenda eta zenbatekoa adierazi beharko ditu, bere ebaluazioa eta hori egiteko erabilitako balorazio-irizpideak adierazita, eta baita zer eskaera ez dituen aintzat hartu eta zer arrazoitan oinarritu den ere.

Udaleko iragarki taulan eta www.oiartzun.eus web orrian ere behin-behineko proposamenaren eta behin betiko ebazpenaren berri emango da.

Behin betiko ebazpena egiteko eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa da, 7. artikuluan zehazten den epeetik kontatzen hasita. Epe hori ebazpena espreski jakinarazi gabe igarotakoan, pertsona edo erakunde eskatzaileek ezetsizat jo ahal izango dituzte beren diru laguntzarako eskaerak.

Dirulaguntza ordaintzea: Behin betiko dirulaguntzaren jakinarazpena eman dela jakinarazi ondoren, ordainketa tramitatuko da. Eta kontuan izango dira, halaber, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzei buruko Ordenantzaren VII. Tituluan aipatzen diren aspektu guztiak.

Dirulaguntza eman dela jakinarazi bezain laster, dirulaguntzaren % 80a ordainduko da, eta honetarako ez zaie inongo bermerik eskatuko onuradunei. Gainerako % 20a denboraldia amaitu ondoren ordainduko da, eskaera egiteko aurkeztu zen aurrekontuari dagokion gastua justifikatu ondoren. Justifikazioa egiterakoan kontuan hartuko da dirulaguntza emateko orduan oinarritzat hartu zen gastuaren aurrekontua, eta benetako gastua. Halaber, kontuan hartuko dira Ordenantza Orokorren VIII. Tituluan aipatzen diren aspektu guztiak.

10. ARTIKULUA.- Onuradunen betebeharrak

Deialdi honetako dirulaguntzen onuradunek, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 6. artikulua ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte.

Ordenantzaren 7., 8. eta 9. artikuluek, hizkuntza, berdintasun eta ingurumen irizpideen inguruan ezartzen dituzten betebeharrak bete beharko dituzte ere.

Aurretik aipatutakoez gain, onuradunek antolatutako ekintzetan idatziz, ahoz edo irudi bidez eginiko iragarki guztietan Oiartzungo Udalaren laguntzaren berri eman beharko du, haren logotipoa txertatuz (ad.: weba, pankartak, eskuorrietan, karteletan...).

11. ARTIKULUA.- Dirulaguntza justifikatzea

11.1 JUSTIFIKATZEKO EPEA

Ekintzak egin ahala justifikatu ahal izango dira, gehienez ekintza bukatu denetik hiru hilabeteko epean, beti ere, hurrengo urteko urtarrilaren 31a baino lehen.

11.2 JUSTIFIKATZEKO ERA

Azaldutako epearen barnean eta Oiertzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzako VII tituluan zehazten dena jarraikiz, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- a) Eskaera orri orokorra
- b) Jardueraren gastuen eta sarreren memoria (IV. ERANSKINA)
- c) Diruz lagundutako ekintzen gastuak osotara justifikatzen dituzten **fakturen kopiak IV. ERANSKINEAN** azaltzen den ordenaren arabera.
- d) Entitateak denboraldian izan dituen **laguntzen eta dirulaguntzen kopia (hitzarmenak, GAO, EAO, ...)**.
- e) Kirol Jardueraren memoria (V. ERANSKINA)
- f) Egin bada, programa, publikazio edota kartel iragarleen bi ale.

11.3 JUSTIFIKATZEKO DOKUMENTU BAIMENDUAK

Oiertzungo Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorreko I. eranskinean zehaztutako dokumentuak bakarrik onartuko dira dirulaguntza justifikatzeko.

12. ARTIKULUA.- Dirulaguntza itzultzea

Deialdi honetako 11. artikulua ezartzen duena betez, dirulaguntza eman deneko jardueraren gastuaren aurrekontuari dagokion gastua justifikatzen ez bada, dirulaguntza osoa edo zati bat eta dagokion berandutze-interesa itzuli beharko da, Oiertzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren IX. Tituluak arautzen duen prozedura jarraituz.

13. ARTIKULUA.- Araudi osagarria

Oinarri-arau espezifiko hauetan berariaz jasotzen ez diren gai guztietan, deialdiaren oinarri-arau orokorretan xedatutakoari jarraituko zaio.

Halaber, Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzari, Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorrari eta bat datozen gainontzeko lege xedapenei jarraituko zaie.